

22.– TXOMIN AGIRRE (1864-1920)

Ondarroa'ko semea. Biotz onekoa ta buru argikoa. Ogei urtekoa zala Gasteiz'ko seminariora joan eta ikasketa laburrean filosofia ta teologia egin ebazan. Nota onak atera eta odol gorriko Azkue izan eban lagun. Bera odol zurikoa zan.

Lenengo mezea Urkiola'n emon eban eta laster izendatu eben Zumaia'ko lekaime karmeldarren kape-lau eta antxe igaro eban bizitza osoa. Erririk eri be ibilten zan itzaldiak egiten.

Euskerea ondo ekian umetatik eta gero gorengo euskalzaleen lagun egin zan.

1918n. urtean Euskaltzaindia sortu zanean, an egoan bera be eta euskera-saillearen arduradun egin eben.

Idazle ugaria dogu. Bere lanik urtenenak : 1) Auñamendi'ko lorea: Iparraldeko arazoai buruz, elebarri abertzalea, frankoen aurka, (ez Nabarro Villoslada'ren bidean). 2) Kresala: Bizkaieraz elebarririk onena, irakurri kitolis eta ekaitza, ederra benetan!. 3) Garoa: Oituzko euskal elebarria gipuzkoeraz, kresala baiño ohea.

Jose M^a Pereda'k, oituren arloan, elebarri bi idatzi ebazan, Peñas Arriba mendikoa eta Sotileza itxasokoa. Antzera gure Txomin'ek be, Kresala itxasokoa eta Garoa basokoa..

IRITZIAK: Orixe'k: "Euskera garbia eta ugaria du". P. Lhande'k: "Garoa da gure Txomin'ek idatzi duan libururik ederrena". Baiña Kuschwich'ek idazle onen lanai "vuelos gallinaceos" diñotse.

Olerkietara be sartu zan Txomin. Ona emen bat, bere euskerea aztertu al izateko

23.– Toribio Alzaga (1861-1941)

Goazen antzerkigilleak aztertzer. Ba-daukagu Iparraldeko pastoralen altxor aundiaren, Europa'ko altxor aundiena erdiaroan danaren albiste, baita Pedro Ignazio Barrutia aramaioarrarena be, bere antzerki-lana "Gabonetako Ikusikizuna" dala. Baiña antzerki-lanak aurrera doaz gure elertian. Ona emen antzerkigille ospetsu batzuren izenak: Soroa, Artola, Azkarate, Uranga, Iraola, Alzaga, Gorostidi, Mokoroa, Zapirain, Barriola ta beste asko.

Toribio Alzaga donostiarra dogu eta karlostarren guda zala-ta Ziburu erritxura erbesteratu bear izan eban. 13 urtekoa zala antxe asi zan Soroa'ren agindupean antzerkiak egiten: Lenengoa "Aterako gara" izan zan (1888), saritua eta sarritan antzeztua, 12 bider argitaratua. Beste 30 antzezlan idatzi ebazan.

Gero Donosti'ra etorri zan eta gazteakaz eleizgiroan jarraitu eban lan ori. Operak be egin ebazan.

ERITZIAK: Atzerkigillerik onena dala diñoe gaur ago batez.

Orixe'k: "Euskal teatroa Alzaga'k oial-zapietatik atera eban".

Mitxelena'k: "Antzerki jator zerrenda eder galanta" aitatzen dau eta komeri atsegiñak be bai.

GERNIKA'RI

Nire biotzak zuretzako dau
bere tokitik onena;
mundu guztiko errietatik,
Gernika, zaitut maitena
eta zelan ez, baldin ba'zara
erririk euskaldunena
ta aman aotik kantu gozuan
ikasi neban izena.

Nik ez nekian nun zan Gernika,
ume nintzala oraindik,
ta irudimenez ikusten neban
(ameslari bat izanik)
andre zabal on baten gisara,
ibar berdean jarririk
uri eder ta zuri garbi bat
Aritzak kerizpeturik.

Gaur ikusten dot Gernika'rentzat
esperantzaren argia;
eskol'onetan barriz barriro
ereingo da birtutia.
Ta itxaro geinke Jaungoikuagan
egun obak ikustia.
Miraritsua fedia da-ta,
emen ba-dago fedia.

Olazar'tar Martin'ek